

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2018ko MARTXOAREN 22an
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita biam, hemezortziak direnean, udalbatza osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Iratxe Parro

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak Osoko Bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko otsailaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Aurreko bilkuraren aktari dagokionez, Iraida andreak (Aiara Batuz) adierazi du martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onartu zen puntuan bere parte-hartze bat falta dela; parte-hartze horretan, esan zuen EH BILDUK deituta zegoen grebara batzeari buruz zioenarekin ados zegoela, eta, era berean, jaso gabe dago proposatu zela esaldi bat gehitzea argi gera zedin Udalak bat egiten zuela greba-deialdiarekin, ondoren hori onartu baitzen.

6.) puntuari dagokionez, non Gizarte Zerbitzuei buruzko hitzarmena onartu zen, Iraida andreak (Aiara Batuz) parte-hartze bat falta da: han, esaten zuen Arabako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen kargen inguruko dokumentua egin zuenean hura udalkideei jakinarazi eta azaldu izan balitzaie, ez lirakeela egoera horretan egongo, eta berak eskatu egin zuela, baina ez zitzaizela iritsi.

Aipatutako aldaketa horiek eginda, eta besterik aipatu gabe, akta aho batez onartu dute bertaratutako udalkideek.

2. Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta buruko gaixotasunak dituztenen familien Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko 2018rako lankidetzaren hitzarmena.

Iraida andreak (Aiara Batuz) adierazi du osoko bilkura honetan jasota geratzea nahi duela Lauren jaunak (EH Bildu) zegoen informazio-batzordean esandakoa: hurrengo ekitaldietan berrikusi egin behar zirela kopuruak, erabiltzaileak eta ematen diren jarduerak ikusteko.

Susana andreak (EAJ) azaldu du ez dela aldatu erabiltzaile kopurua. Gehitu du bere ideia dela eskualde mailan adostutako zerbait egin daitekeela.

Lauren jaunak (EH Bildu) esan du eztabaida elkarte horren bidez herritarrei emango zaizkion gizarte zerbitzuak zehaztearen ingurukoa izan behar dela, eta ea nola finantzatu parte hartzen duten erakundeen artean.

Gentza jaunak (EAJ) adierazi du beste udal batzuekin eta ASASAMekin harremanetan jarriko direla datozen urteetan hitzarmen hori nola bideratu aztertzeko.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udalak interesa duela irabazi asmorik gabeko elkarteak (ASASAM) Aiarako eskualdean egiten duen lanari laguntzen eta hura sustatzen, eta, gainera, zuzenean mesede egiten die Udaleko hainbat pertsonari.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta ASASAM elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena, aipatutako elkarte horren urteroko jardueren zati bat diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- IKUSI DA.- 2018ko martxoaren 13ko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DIRA.- 2018ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta buruko gaixotasunak dituztenen familien Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko 2018rako lankidetzak-hitzarmena, 2018 urteko jardueren gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau ASASAMi jakinaraztea; bi kopia atxikiko dira, eta horietako bat itzuli beharko dute, behar bezala sinatua.

3. Onestea, bidezkoa bada, Amor Misericordiosorekin egindako lankidetzak-hitzarmena 2018ko ekitaldirako.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso eskolak zer gizarte-lan egiten duen bere zentroan harreraren hartutako ikasleekin, eta Aiarako Udalak lan hori sustatzen interesa duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso eskolaren arteko lankidetzak-hitzarmena, aipatutako zentro horiek bere ikasleekin egingo dituen ekimen eta jarduerak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- 2018ko martxoaren 13ko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DIRA.- 2018ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso eskolaren arteko lankidetzahitzarmena, aipatutako zentro horiek bere ikasleekin 2018an egingo dituen ekimen eta jarduerak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkateari-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Amor Misericordioso eskolari jakinaraztea; bi kopia atxikiko dira, eta horietako bat itzuli beharko dute, behar bezala sinatua.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Valle de Llanteno elkarte kultura-artistikoarekin egindako 2018rako lankidetzahitzarmena

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udalak interesa duela Valle de Llanteno eskola artistiko elkarteak Aiarako udalerrian urtero egiten duen lan kulturalari laguntzeko eta hura sustatzeko.

IKUSI DA.- Airako Udalaren eta Valle de Llanteno eskola artistiko elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, marrazketa, pintura, zeramika eta zizelkatze jarduerak dakartzaten gastuen zati bat diruz laguntzeko; zehazki, irakasleak kontratatzeak eta ikastaroak emateko materialak dakartzaten gastuak.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko martxoaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DIRA.- 2018ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Airako Udalaren eta Valle de Llanteno eskola artistiko elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, marrazketa, pintura, zeramika eta zizelkatze-jarduerak dakartzaten gastuen zati bat ordaintzeko; zehazki, irakasleak kontratatzeak eta ikastaroak emateko materialak dakartzaten gastuak.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Valle de Llanteno eskola artistiko elkarteari jakinaraztea; bi kopia atxikiko dira, eta horietako bat itzuli beharko dute, behar bezala sinatua.

5.- Onestea, bidezkoa bada, AMUKATU elkartearekin egindako 2018rako lankidetzahitzarmena

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak interesa duela Amukatu elkarteak egiten duen gizarte-jarduera babesteko; haien helburua Aiarako udalerrian dauden katu koloniak kontrolatzea eta haien egoera hobetzea da.

IKUSI DA.- Ikusi da aipatutako elkarteak Laudioko eta Urduñako albaitaritza-zentroarekin elkarlan zuzena duela katu-koloniak kudeatzeko proiektuan, bereziki antzutzekak eta beste jarduketak higieniko-sanitario batzuk egiten.

IKUSI DA.- IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amukatu elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2018 ekitaldiari dagokiona.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko martxoaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DIRA.- AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalak Amukatu elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza bat araupetzen duela. Bestalde, 2017ko udal-aurrekontuan bi partida izendun daude, kreditu nahikoarekin eta egokiarekin, hitzarmen hau sinatzeak Udalari dakarkion gastuari aurre egiteko.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Amukatu elkartearen 2018 ekitaldirako lankidetzahitzarmena, Aiarako udalerriko katu-koloniak kontrolatzeko eta baldintza higieniko-sanitarioak hobetzeko egiten duten gizarte-lana bultzatzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Hirugarrena.- Hitzarmena sinatu ondoren, Amukatu elkarteari jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Etxaurrengo Lagunak elkartearekin egindako 2018rako lankidetzahitzarmena

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak interesa duela udalerrian antolatzen dituzten kultura- eta festa-ekitaldiak sustatzeko eta babesteko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurrengo Lagunak elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, Etxaurrengo ermitan irailean antolatzen dituzten festak sustatzeko eta indartzeko.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko martxoaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DIRA.- 2018ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurrengo Lagunak elkartearen arteko lankidetzahitzarmena 2018ko ekitaldirako, Etxaurrengo ermitan irailean urtero antolatzen duten festak sustatzeko eta indartzeko.

Bigarrena.- Alkateari-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Etxaurrengo Lagunak elkarteari jakinaraztea; bi kopia erantsiko dira, era horietako bat itzuli beharko dute, behar bezala sinatua.

- Gai zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkateak gai zerrendatik kanpo sartzeko eta premiaz onesteko Arabako Foru Aldundiarekin egindako lankidetzahitzarmen bat proposatu du, agiriak hitzartuta erregistratzeko.

Idazkariak azaldu du ezin izan dutela hitzarmena informazio batzorde batean landu zegokion sailari araudi berriaren zirriborro eguneratu bat bidaltzeko eskatu bazioten ere ez zelako batzordeetara garaiz iritsi. Eta premiaren arrazoia da otsailetik amaituta dagoela aurreko hitzarmena, eta ezin direla jaso Aldundiarentzat diren dokumentuak.

Idazkariak udalkideei azaldu die zertan den hitzarmena, eta zein epe duen; izan ere, berez, 2018ko urritako administrazio publiko guztien erregistroek elektronikoak eta elkar eragingarriak izan beharko lukete. Ordurako, edozein herritarrek edozein administrazioko sarrera-erregistro elektronikotan sartu ahal izango ditu edozein administrazio publikorentzat diren agiriak.

Nerea andreak (EH Bildu) azaldu du bere taldean zalantzak dituela ez dutelako gai horren konplexutasuna ulertzen, eta ez dutela oso argi zertaz ari den hitzarmena.

Josu jaunak (EH Bildu) gehitu du hitzaren hau gai zerrendatik kanpo iritsi dela, batzordean landu gabe, eta behar bezala azaldu beharko litzatekela eztabaidatu eta bozkatu aurretik. Josu jaunak gehitu du gai zerrendatik kanpo iritsi dela, beste gauza asko bezala, eta bere taldeko lau zinegotziek ez dakite ea nahikoa ulertzen duten hitzarmenaren edukia.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du hitzarmen hau otsailera arte Aldundiarekin agiriak erregistratzeko zegoen beste hitzarmen baten berritzea dela. Zirriborroa duela bizpahiru egun iritsi da Udalera, eta horregatik ezin izan da sartu zegokion batzordean. Beharrezkoa da onestea bizilagunek, elkarteek eta batzordeek Arabako Foru Aldundiarentzat diren agiriak Udalean erregistra ditzaten, eta ez ditzaten Laudion utzi behar; hitzarmen honekin, Udaleko sarrera-datak Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan utzi izan balute bezala balioko du. Osoko bilkurara premiaz ekartzeko arrazoi bakarra da lehenbailehen indarrean sartzea.

Idazkariak gehitu du aldi baterako hitzarmen bat dela, aurrez azaldu moduan, eta oraingoz, Ahaldunen Batzordeak onetsi arte, zirriborro hori ez dela eraginkorra izango, baina, hala, Ahaldunen Batzordeak onestean, alkateak sinatu ahal izango du.

Nire andreak (EH Bildu) azaldu du bere taldea ez dagoela hitzarmena onestearen aurka, zalantzak dituztela jakinarazi nahi dute, ez besterik. Zalantza batzuk emandako azalpenetan argitu zaizkie. Baina azaldu du lehenago argitu bazitzaizkien, beste jarrera bat izango luketela osoko bilkuran.

Gentza jaunak (EAJ) esan du dokumentazioa ez dela ezein batzordetara eramateko bezain garaiz iritsi. Dena dela, edozein punturen inguruko zalantzak badituzte, azaldu die idazkariari edo berari deitu diezaioketela zalantzak argitzeko. Gehitu du puntuak ez direla kapritxoaz sartzen gai zerrendatik kanpo.

Nerea andreak (EH Bildu) azaldu du hori ez duela zalantzan jartzen, baina gauzak hain aurrerapen gutxirekin (24 ordu) iristen badira ez dutela denborarik azalpena jasotzeko, eta ez dakite zein jarrera izango duten osoko bilkuran.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ + 2 AB)

Abstentzioak: 4 BILDU

Beraz, osoko bilkuraren gai zerrendan sartu da puntu hau:

7.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa, agirien erregistroari buruzkoa.

Josu jaunak (EH Bildu) azaldu du bere taldeak ez duela oztopatu nahi onuragarritzat duten zerbait, nahiz eta osoko bilkurara ekarri duten modua ez den egokia izan, eta eskatzen dute, etorkizunean ardura handiagoa izan dezatela eta puntuak ez daitezela 24 ordu lehenago iritsi.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz, honako akordio hau onetsi da:

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa, agirien erregistroari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DIRA.- 39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta 40/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa, agirien erregistroari buruzkoa.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, jakin dezan eta ondorioetarako.

- Gai zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkateak gai zerrendatik kanpo gehitzeko beste puntu bat proposatu du.
Azaldu du denbora daramatela botika-kutxa instalatzearen kontua izapidetzen.
Batzordeetan eta aurreko osoko bilkuran iraupena eta ordainketa adostu zen.

Botika-kutxa instalatzea baimentzen duen Eusko Jaurlaritzaren agiriak martxoaren 19an iritsi ziren; horregatik ezin izan da gaia batzordeetan landu.

Gentza jaunak (EAJ) azaldu du kontratuan aurreko osoko bilkurak adostutako guztia jaso dela, ezarri beharreko baldintzei dagokionez, farmazialariarekin hitz egin da, eta ordainketa, hilero beharrean urtero egingo da, errazagoa izan dadin. Era berean, fidantza bat ordaintzearen betebeharra sartu da. Gentza jaunak gehitu du hurrengo osoko bilkurarako ez uztearen premiaren arrazoia dela farmazialariak ezin duela inolako hornidurarik altan eman kontratu hau gabe, eta aurreratu egin nahi duela.

Puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz, honako hau da puntua:

8.- Onestea, bidezkoa bada, hiriko higiezin baten errentamendu-kontratua farmaziako botikina izan dadin, eta alkateari baimena ematea hura sinatzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udalak etxola bat eskuratu eta berritu duela, Aiarako Katastroko 3. poligonoko 1333. Lursailean kokatutakoa, Luiaondo udalerrian, farmaziako botika-kutxatzat erabiltzeko.

IKUSI DA.- Jarduera-espeditatea izapidetu dela aurrez jakinarazi beharreko jarduera-motaren bidez, indarreko araudiarekin bat eginda, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zaiola botika-kutxa instalatzeko, Farmazia zuzendariaren erabaki bidez onetsi zena 2018ko martxoaren 13an.

IKUSI DA.- 500/1995 dekretuaren (azaroaren 28koa, botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta jardunbiderako erregimena ezartzekoa) 2.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, 800 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, farmazia-bulego bat dutenetan, udalerriko farmazia-bulego horretara lotuta egon beharko dute botika-kutxek.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako udalerrian farmazia bakarra dagoela, Arespaldizan, Arabako 82. zenbakia duena, eta jabea J. E. C. G. jauna da (elkargokide zk.:1015); beraz, lehia ez da beharrezkoa farmazia botika-kutxa izateko berritutako lokalaren alokairua esleitzeko. Ondorioz, beharrezkoak diren elkarrizketak egin ondoren, bi aldeek adostu dute lokala alokatzeko kontratua formalizatzea.

AINTZAT HARTU DA.- 500/1995 dekretuak (azaroaren 28koa, botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta jardunbiderako erregimena ezartzekoa) eta 7/85 Legearen (apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 22. artikulua ezarritakoa.

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Aiarako Katastroko 3. poligonoko 1333. Lursailean (Luiaondon) kokatutako farmaziako botika-kutxa izateko hiriko higiezinaren E. C. G. jaunaren aldeko errentamendu-kontratuaren zirriborroa onartzea.

Bigarrena.- 720 euroko urteko errenta ezartzea (dagokion BEZa gehituta, eta aurreko urtea bukatzean zegoen KPIaren arabera handituko dena, hura positiboa bada).

Hirugarrena.- Errentamendu-epaia hogei urtekoa izatea, kontratua sinatzen denetik-

Laugarrena.- Errentarien kontu izango dira lokalean emango diren zergei, zerbitzuei edo hornidurei dagozkien gastu guztiak, edo hari berari edo han egiten den jarduerari dagozkionak, hala nola argindarra, ura, erregaia, telefonoa, zaborra jasotzearen zerga, etab. Era berean, bere esku egongo dira lokalaren garbiketa eta altzariak berritzea.

Bosgarrena.- 720 euroko fidantza bat ezarri da, lokalaren erabilera eta mantentzeari erantzuteko berme moduan, bai eta bere kargura dauden gastu guztiei ere.

Seigarrena.- Alkateari-udalburuari aipatutako kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

9.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

2018/60.- A. Zuaza Batzordea.- G.R fidantza itzultzea.

2018/62.- J.A.F.C.- Agiri gehiago eskatuz

2018/61.- Andoni administrazio laguntzailea ordezkatzeko bitarteko funtzionarioa aukeratzea

2018/63.- J.M.V.V. 2018ko TMIZren salpuespena ematea, urritasun bat egiaztatzeagatik.

2018/64.- G.F. 2017ko landako OHZ erreziboa itzultzea.

2018/65.- J.B.A.A.- Etxebizitza bateko teilatua birgaitzeko obretarako lizentziaren espedienteko agiri gehiago eskatuz.

2018/66.- Ur Partzuergoa.- Lizentzia ematea lursail batean ur-hargunea konpontzeko.

2018/67.- Arabako Foru Aldundia Agiri gehiago eskatuz.

2018/68.-2018ko Ibilgailuen gaineko Zergaren Erroldaren onespina.

2018/69.- 2016-2017ko euskara-ikastaroetarako diru-laguntza ematea.

2018/70.- Llanteno A. Batzordea.- Labarrietako bidea konpontzeko obrak legalizatzea.

2018/71.- I.F.R. - Zaldia hazteko abere-pabiloiko jarduera alde aurretik jakinaraztea

2018/72.- I.O.A.- Obretarako lizentziaren espedienteko agiri gehiago eskatuz.

2018/73.- M.C.B.G.- Aparkatzeko txartela ematea

2018/74.- M.C.O.A.- Aparkatzeko txartela berritzea

2018/75.- Luiaondoko A. Batzordea.- Hondakinen kudeaketako fidantza itzultzea.

2018/76.- Onestea F/2018/2 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

2018/77.- M.A.A.S.- Artxiboko dokumentazioa aztertze eskubidea emanez

2018/78.- Luiaondoko A. Batzordea.- Hondakinen kudeaketako fidantza itzultzea.

2018/79.- HAPOn hasierako onarpenaren erakuste-aldia zabaltzea.

2018/80.- Izoriako A. Batzordea.- Obretarako lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/81.- M.A.F.O.- Eskatutako informazio publikorako sarbidea emanez.

2018/82.- F.FDP.F.- Eskatutako informazio publikoa ez dagoela esatea.

2018/83.- G.T.L.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko teilatua konpontzeko.

2018/84.- L.U.S.- Exekuzio subsidiarioaren gastuen ordainketa-espedientea hastea.

2018/85.- J.A.M.O.- Espediente administratibo baten informazio publikora sarbidea ematea.

2018/86.- P.B.M.- Espediente administratibo baten informazio publikora sarbidea ematea.2018/87.- A.F.U.- Aparkatzeko txartela ematea

2018/88.- 2018ko elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia onestea.

2018/89.- I.J.V.O.- Obretarako lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/90.- S.G.A.- Eskatutako informazio publikorako sarbidea emanez.

2018/91.- C.B.G. TMIZ salbuestea, elbarritasunagatik.

- Iraida andreak (Aiara Batuz), 2018/84 dekretuari buruz galdetu du; ez omen daki zertaz ari den.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun dio Udalak exekuzio subsidiariozko obra bat egin behar izan zuela premiaz, Zuhatzako bide batean, pertsoneri eta ibilgailuei kalteak eragitea eragozteko, bidearen mugakide den eraikina egoera txarrean baitzegoen. Beraz, faktura jasota, espediente bat hasi da jabeari ordaintzeko eskatzeko.

10.- Galde-eskeak

- Nerea andreak (EH Bildu) esan du, otsailean osoko bilkuran onetsi zen martxoaren 8ko adierazpenari dagokionez, alkateak esan duela testu bat adostu zutela. Baina nahiz eta orduan ez zen azaldu, horren inguruan esan nahi du ez zela ezer adostu. Gainera, gehitu du, azken zehaztapena, Udala greba feministara batu zela zioena, azken momentuan adostu zen osoko bilkuran.

Adierazpen horri buruz, kritika bat jaso dadin nahi du; izan ere, uste dute ez direla praktikan jarri hartutako konpromisoak; erabili zen kartelak ez zuen osoko bilkurak hartutako erabakia islatzen. Ondoren, kartela zuzendu zen, baina uste dute ez zuela zuzen islatzen adostutakoa. Nazioarteko greba-deialdi bat izanda, eta zuen oihartzuna izanda, Udalak greban parte hartzera deitu behar zuen, iragarri egin behar zuen, eta oihartzun handiagoa eman. Haren ustez, ez zen grebaren aldeko apustu garbi bat egon, anekdotikoa izan zen. Greba eta hura babestea zaila zen emakume askorentzat, eta ez zuten Udalaren babesa sentitu. Hortaz, gehitu du, osoko bilkuran hartzen diren erabakiak bete egin behar dira, ondorio guztiakin.

Josu jaunak (EH Bildu) gehitu du denak izan zirela osoko bilkura grebara batu izanaren lekuko. Gehitu du EAJ ez dela grebara atxiki ofizialki, baina osoko bilkura honetan erabaki bat hartu zela, eta, osoko bilkurak erabaki bazuen grebara atxiki zela, atxikimendu hori ezin dugu aurkitu “Emakumeok planto”-ren logotipo batean; agerikoa izan behar zen, argi geratu behar zuen Udalak greba hori babesten zuela.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du EAJk askatasuna ematen diela beren kideei greba egiteko edo ez. Bereizi egin behar da alderdiak ofizialki esan edo egiten duena erakunde honek egiten duena.

Susana andreak (EAJ) gehitu du berak greba egin zuela, eta bere alderdiak, EAJk, ez ziola esan zer egin eta zer ez. Batzordea egin zenean, ez zegoen EH Bilduk edo Aiara Batuzek proposatutako testurik adierazpen instituzional hori egiteko. Eudelen testua iritsi zenean, Berdintasun teknikarien ekarpenak falta ziren. Batzorde batera deitu zen, astearterako, testua adosteko. Informazio hori berdintasun-foro batera eraman zen, kartela egin zen, eta “Emakumeok Planto”-ren logotipoa Udalaren logotipoaren ondoan jartzea erabaki zen. Iraida andreak, foro horretan, komentatu zuen ez zitzaiola erreferentziarik egiten greba feministari, eta, ahal zen neurrian, aldatzen saiatu zen.

Ekarpenak egin ziren, ahal izan zen neurrian, zeuden mugekin. Gogoan hartuko da, hurrengoan hobeto antolatu ahal izateko.

Nerea andreak (EH Bildu) gehitu du greba feministaren deialdiak izan behar zuela erdigune, eta herritarrei jakinarazi behar zitzaiola Udala grebari atxikitzen zitzaiola eta babesten zuela.

Susana andreak (EAJ) dio hurrengo deialdiatarako hobeto egiten saiatuko direla eta herritarrei hobeto jakinarazten osoko bilkuran hartutako erabakiak.

Nerea andreak (EH Bildu) adierazi du bereizi egin behar dela foroan adosten dena eta osoko bilkuran adosten dena. Oso arinki eman zitzaion herritarrei osoko bilkuran adostutakoaren berri.

Susana andreak (EAJ) gehitu du behin kartela zuzenduta goiko zatian jarri zela babesten zela greba, eta batzen zirela. Etorkizunean hobeto egin ahal izango da. Kartela ez zen adostu, eta gehitu du ez direla guztian ados egongo, kartela ez zuten udalkide guztiek adostu, baina, hurrengorako, beharbada denen artean adostu beharko da.

Nerea andreak (EH Bildu) gehitu du Udalak greba feministari emandako babes beste modu batera zabal zitekeela, ez bakarrik kartelaren bidez; bandoen bidez, edo bestela.

Josu jaunak (EH Bildu) gehitu du elkarretaratzean egon ez ziren herritarrek ez zekitela Udalak greba feminista babesten zuela.

Gentza jaunak (EAJ) esan du adierazpena zabaldu egin zela: irratiz, Whatsappez, eta kartelean: hortaz, hainbat bitartekotatik zabaldu da.

Josu jaunak (EH Bildu) gehitu du, hori dena dela jende asko ez dela enteratu.

- Josu jaunak (EH Bildu) adierazi du, HAPOren hasierako onarpenari alegazioak egiteko epea atzeratzeari buruz, EH Bilduri gutun bat bidali zaiola egindako eskariari erantzunez, tonu gogor eta harroan esanez epea handitzea onetsiko dela, nahiz eta behar bezala argitaratu den, Whatsappez bidali, webgunean, etab.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du ez dagoela inolako harrokeriarik; gutunean azaltzen da zein bitartekotatik iragarri den alegazio-epea, zinegotzi guztiek ari izan dezaten. Gutunean ez da egoera besterik jaso.

Esteban jaunak (EH Bildu) esan du esan zuela zinegotziek ez zutela ofizialki izan herrietan egingo ziren bilera-deialdien berri. Azaldu du hari geroago iritsi zitzaioela.

Iñigo jaunak (EAJ) gehitu du herrietan egindako bileren daten inguruan zegokion batzordean hitz egin zela.

Esteban jaunak (EH Bildu) adierazi du batzordean landu zela, baina teknikarien kontu geratu zela lantzea eta adostea.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du agian ez zela ofizialki esan, teknikoekin adostu ondoren. Ez zen konturatu, eta ez zuen ofizialki bidali.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hogeita hamar zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita biam.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.